



Gernikak+: menpekoen memoriak



Uda Ikastaro honetan, bai koadro hori, bai Gernikako gertakari traumatikoa, memoria hegemonikoarekin bat ez datozen subjektibitatearen memoria anitzak zeintzuk diren eta nola eraikitzen diren hausnartzeko aitzakia izango dira.

Uzt. 15 - Uzt. 16 2025

Kod. K06-25

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 15 - Uzt. 16 2025

Kokalekua

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

20 ordu

Webgunea

<https://mhli.net/>

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Nola azter ditzakegu Gernikako Bonbardaketa edo Picassoren *Guernica* bezalako koadro ezaguna ikasketa subalternoen kontzeptuaren barruan bil daitezkeen ikuspegi ezberdinetatik?

UPV/EHUko MHLI (Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan) ikertaldeak Uda Ikastaro hau proposatzen du, Gernikako Bonbardaketa, bere irudikapenak, eta orokorrean, Espainiako Gerra Zibila, menpeko talde sozialei erreparatzen dieten ikuspegi bitartez aztertzeko (Subaltern Studies).

Picassoren artelan ezagun hori oraindik ere sortzen dituen hamaika interpretazioengatik nabarmentzen da. Ikastaroan, bai koadro hori, bai Gernikako gertakari traumatikoa, memoria hegemonikoarekin bat ez datozen subjektibitatearen memoria anitzak zeintzuk diren eta nola eraikitzen diren hausnartzeko aitzakia izango dira: hau da, menpeko memoriak edota bestelako memoriak.

Helburuak

Gernikako Bonbardaketa eta bere irudikapenak ikuspegi feminista, queer, postkolonial eta kritikoetatik aztertu.

Tradizionalki gizonezko elite burges eta zuri hegemonikoek gutxietsitako talde sozial ez-normatiboek (genero, sexu orientazio edo identitate, klase, adin, elbarritasun edo beste edozein arrazoierangatik) Gernikako Bonbardaketan eta, orokorrean, Espainiar Gerra Zibilean bizitako errealitatean sakontzea.

Diziplinarteko ikuspuntuak garatzea, gertakari historiko-kulturalen dimentsio zabaletaz jabetzeko.

Antolakuntza



Lankidetzak



Programa

2025-07-15

09:00 - 09:15	Erregistroa / Registro
09:15 - 09:25	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena
	Ikastaroaren aurkezpena
	Ismael Manterola Ispizua MHLI. UPV/EHU - Arte Ederren Fakultateko Dekanoa/Decano de la Facultad de Bellas Artes
	Ikastaroaren aurkezpena
	Aitana Pérez Ortiz MHLI. UPV/EHU - MHLI taldeko ikerlaria/Investigadora del grupo MHLI
09:30 - 10:30	“Picasso y las otras memorias de la Historia del Arte”
	Isabel Mellén Rodríguez Zaragozako Unibertsitatea - Irakaslea
10:30 - 11:30	“Elkarte eta fundazioen ekintza memoriaren eginkizunean”
	Julen Díaz de Argote García Martxoak 3 Elkartea - Ordezkaria/Representante María Oianguren Idigoras Gernika Gogoratuz Fundazioa - Zuzendaria/Directora
11:30 - 12:00	Atsedena
12:00 - 12:45	“Literaturaren potentzialtasuna sexu-disidentziaren memoriaren arloan”
	Aitana Pérez Ortiz MHLI. UPV/EHU - MHLIko ikerlaria/Investigadora MHLI
12:45 - 13:30	“Memorias del activismo LGTBIQA+”
	Lala Mujika Flores Aldarte Kolektiboa - Ordezkaria/Representante Juango Olasagarre Mendinueta Euskal Herriko Gay-Les Askapen Mugimendua (EGHAM) - Ordezkaria/Representante

2025-07-16

09:30 - 10:30	“Madre con niño muerto: iconografía materna y orden de género en la Guerra Civil Española”
	Maite Garbayo Maeztu UPV/EHU - Ramón y Cajal Ikerlaria/Ingestigadora Ramón y Cajal
10:30 - 11:30	“Trauma historikoaren XXI. mendeko ekfrasiak euskal arte adierazpen literario eta plastiko feministetan”
	Leire Iruretagoiena Goikoetxea MHLI. UPV/EHU - MHLIko ikerlaria/Investigadora MHLI
11:30 - 12:00	Atsedena
12:00 - 12:45	“Memoriarekin uztartutako arte plastikoetako proiektuak”
	Miriam Isasi Arce Artista

12:45 - 13:30 Bideoforum: Miriam Isasiren "Gigante roja" eta Amaia Molineten "The Ideology of Love" pelikulen proiektzioa eta solasaldia

13:30 - 13:35 Itxiera

Ismael Manterola Ispizua | MHLI. UPV/EHU - Arte Ederren Fakultateko Dekanoa/Decano de la Facultad de Bellas Artes

Aitana Pérez Ortiz | MHLI. UPV/EHU - MHLIko ikerlaria/Investigadora MHLI

Andere Larrinaga Cuadra | MHLI. UPV/EHU - Arte Ederren Fakultateko Kalitate Dekanordea/Vicedecana de Calidad de la Facultad de Bellas Artes

Zuzendaritza



Ismael Manterola Ispizua

MHLI. UPV/EHU

(Zumaia, 1966). Arte Historian lizentziatu zen Valentziako Unibertsitatean eta doktoregoa EHU/UPVn gauzatu zuen Arte Historian. Egun EHU/UPVko Arte Ederren Fakultatean Artearen Historia irakasten dihardu. Egunkarian, Berrian eta Garaegunkariko Mugalari gehigarrian arte kritika idatzi du. Gure Artea 2006 (2006) eta Bilbea eta Hari askeak: euskal artearen bi bildumen arteko elkarrizketa (2014) izeneko erakusketak antolatu ditu. Bere agitalpenen artean daude, besteak beste, 2012an UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuaren eskutik kaleratutako Raemaekerseren Marrazkiak: Britainiar propaganda Espainian eta Euskal Herrian Lehen Mundu Gerran liburua eta Autonomía e ideología (2016) liburuko “Compromiso o especificidad del medio. Arte en el País Vasco en las últimas décadas del siglo XX” atala.



Aitana Pérez Ortiz

MHLI. UPV/EHU

(Sopuerta, 1999) Filologia Hispanikoan lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean (2021). Euskal Filologia eta Hizkuntzalaritza Masterra egin zuen unibertsitate berean (2022) eta Espainiar eta Hispanoamerikako Literatura, Literatura Konparatua eta Literaturaren Teoriako Masterra Salamancako Unibertsitatean (2023). Bere ikerlerro nagusiak queer/LGTBIQ+ ikasketak eta genero ikasketak dira, bereziki, euskal literaturari dagokionez. Horren adibide da berriki egin duen ikerketa euskal poesia garaikidean ageri diren queer diskurtsoei buruz, hain zuzen ere, Empar Pineda III (2023, UPV-EHU) saria jaso duen ikerlana. 2024an Eusko Jaurlaritzaren Doktoratu Aurreko Programako beka eskuratu du eta horri esker bere doktore-tesia garatzen dihardu gaur egun “Representaciones literarias del colectivo LGTBIQ+. Los discursos queer en la poesía y narrativa vascas (1990-2023)” izeneko.

Irakasleak



Julen Diaz de Argote García

UPV/EHU

Historian graduatua EHUn. Arkeologia Profesionala eta Ondarearen Kudeaketa Integraleko Masterra Alacanteko Unibertsitatean. 2018tik Martxoaren 3ko bisita gidatuen koordinatzailea. Memoria Gara elkarteko kidea eta Martxoaren 3ko ikerketa eta koordinazio lanetarako arduraduna.



Verónica Domingo Alonso

Verónica Domingo-Alonso. Licenciada en Bellas Artes por la UPV/EHU (2012), Máster de la Universidad de Bellas Artes de Norwich-UK (2013) y Máster en Medios de Impresión Gráfica UCLM / FNMT (2014-2016). Actualmente doctorando en Arte Producción e investigación en la UPV. Nacida en Bilbao (1989) es una artista multidisciplinar que rediseña la estética, desde una visión íntima y personal, utilizando un lenguaje visual desde un campo expandido del conocimiento del dibujo, en su investigación sobre las nociones de lugar, espacio y territorio. Lo que propone dentro de su praxis es una forma de creación en la que dibujo, escultura, grabado, pintura e instalación adquieran un valor absoluto en la construcción de un marco complejo y abstracto, informado por el conocimiento de la caligrafía y el arte asiático. Su práctica hereda y promueve un sentido de la historia a través de su propia fabricación, explorando nuevos discursos en relación a la memoria histórica y la conciencia social. Sus obras sirven como testimonio de conceptos tales como tiempo, espacio, memoria, palimpsesto y ausencia.



Maite Garbayo Maeztu

Investigadora Ramón y Cajal en el Departamento de Historia del Arte y Música de la Universidad del País Vasco (EHU) e Investigadora Principal (IP) del Proyecto Ritmos del trabajo femenino en la historia del arte y la cultura visual (Estado español, 1936-2022), financiado por el MCIN. Sus investigaciones exploran las intersecciones entre los feminismos, la cultura visual y popular y el arte contemporáneo en el Estado español y en Latinoamérica durante el siglo XX. Su primer libro, *Cuerpos que aparecen. Performance y feminismos en el tardofranquismo* (consonni, 2016), analizaba la presencia del cuerpo en

las prácticas de performance de los últimos años de la dictadura franquista, en conexión con el activismo feminista de la época y la cultura visual y popular. Realizó el postdoctorado en el Instituto de Investigaciones Estéticas de la Universidad Nacional Autónoma de México y posteriormente trabajó como Académica T.C. en el Departamento de Arte de la Universidad Iberoamericana (México), y como Profesora Serra Hünter en el Departamento de Historia del Arte de la Universidad de Barcelona.



Leire Iruretagoiena Goikoetxea

EHU

EHUko Literatura Konparatua eta Literatur Ikasketak eskolako doktoregaia, MHLI ikertaldeko kidea eta Eusko Jaurlaritzako bekaduna. Egun, ikerketa egonaldia burutzen ari da Veneziako Ca' Foscari unibertsitatean, Eusko Jaurlaritzako dirulaguntza gehigarri bati esker. Artearen Historian lizentziatu eta (Erromako La Sapienza unibertsitatean, Erasmus ikasle gisa, egonaldi bat egin eta gero), Literatura Konparatua eta Literatur Ikasketak masterra ikasi zuen EHUn. Bere tesian, Gernik(ar)en ekfrasi (feministak) ari da aztertzen (euskal) literatura eta arte plastikoetan, betiere intermedialitate-, memoria- eta genero ikasketen argitan.



Miriam Isasi Arce

Arte Ederretan doktorea da UPV/EHUtik, eta Mexikoko UNAMen egin du nazioarteko egonaldia. Egonaldi programetan parte hartu du, Espainiaren Erromako Akademian (Italia), Artista X Artista proiektuan (Kuba), Bilbaoarte Fundazioan, Bregenz-eko Kunsthhaus-en (Austria), EAS-EZE Bitamine Faktorian (Irun-Buenos Aires), MA Studion Pekinen eta Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoan. Ikuspuntu garaikidean kokatuta, sortzen duen diskurtsoa eraikitzeke hainbat arlori egiten dio keinu: antropologiari, historiari, aktibismoari, paisaiari eta memoriari. Hainbat erakusketatan parte hartu du, besteak beste, toki hauetan: ARTIUMen, Montehermoso Kulturunean, Azkuna Zentroa-Alhóndigan, BilbaoArte Fundazioan, Erromako Espainiaren Akademian, San Fernando Akademian, Bilboko Guggenheim Museoan, MUSACen, HUARTEn, CABen eta San Telmo Museoan. Gaur egun La Lagunako Unibertsitateko irakaslea da.




UPV/EHUko Artearen Historiako irakaslea da. Artearen Historia lizentziatua (2000) eta doktorea diziplina berdinean (2017). Leioako Arte Ederren Fakultatean ematen ditu eskolak eta aro garaikideko artean espezialista da. Bere lehentasuneko ikerketa alorra Euskal Herriko arte garaikidea da eta, zehazki, garai eta testuinguru horretan garatutako arte kritika eta idazkiak. Gainera, beste ikerketa lerro bat dauka irakaskuntza berrikuntzari zuzendua bere UPV-EHUko Artearen Historia eta Musika Saileko klaseen hobekuntza jarraia bermatzeko. Aldi berean, berarentzat oso inportantea da unibertsitateko ezagutza gizarteratzea eta horregatik hitzaldi eta ikastaro espezializatu anitzetan parte-hartu du aro garaikideko Artearen Historia dibulgatzeko eta publiko zabal batean ezagutarazteko.



Ismael Manterola Ispizua

MHLI. UPV/EHU

(Zumaia, 1966). Arte Historian lizentziatu zen Valentziako Unibertsitatean eta doktoregoa EHU/UPVn gauzatu zuen Arte Historian. Egun EHU/UPVko Arte Ederren Fakultatean Artearen Historia irakasten dihardu. Egunkarian, Berrian eta Garaegunkariko Mugalari gehigarrian arte kritika idatzi du. Gure Artea 2006 (2006) eta Bilbea eta Hari askeak: euskal artearen bi bildumen arteko elkarrizketa (2014) izeneko erakusketak antolatu ditu. Bere agitalpenen artean daude, besteak beste, 2012an UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuaren eskutik kaleratutako Raemaekerseren Marrazkiak: Britainiar propaganda Espainian eta Euskal Herrian Lehen Mundu Gerran liburua eta Autonomía e ideología (2016) liburuko “Compromiso o especificidad del medio. Arte en el País Vasco en las últimas décadas del siglo XX” atala.



Isabel Mellén Rodríguez

Álava Medieval/Erdi Aroko Araba


Isabel Mellén es Licenciada en Filosofía por la Universidad Complutense de Madrid y Graduada en Historia del Arte por la UNED. Actualmente se encuentra finalizando el doctorado en Filosofía por la Universidad de Zaragoza e impartiendo clases de Filosofía Antigua y Medieval en UNED. Como historiadora del arte forma parte del equipo de Álava Medieval / Erdi Aroko Araba, proyecto dedicado a la investigación y divulgación del patrimonio, la historia y la cultura alavesa. Dentro de este marco ha dirigido el proyecto de investigación “La mirada estereotipada hacia el pasado. Mujeres, género y sexualidad en el imaginario de la Edad Media alavesa”, financiado por el Departamento de Igualdad de la Diputación Foral de Álava y que ha dado lugar a artículos académicos y obras de carácter divulgativo

como el libro de reciente publicación “Tierra de damas. Las mujeres que construyeron el románico en el País Vasco”.



Lala Mujika Flores

Socióloga de formación. Me interesé por la psicología para cuestionar con más “oficio” esa salud mental que patologizaba las vidas de las personas LGTBIQ+. Hoy día sigo en la psicología, en ALDARTE, cada vez más seducida por esa especialidad que tiene que ver con la diversidad sexual y de género. Creo en muchas cosas, y mi vida se centra en la defensa a ultranza, tanto en la calle como en consulta, de las posibilidades que tenemos las personas a habitar el género que queramos, y tener la sexualidad que deseamos. Esta defensa incluye la heterosexualidad y el derecho a permanecer en el género asignado al nacer de por vida.



María Oianguren Idigoras

Gernika Gogoratuz

)



Juango Olasagarre Mendiñeta

Juango Olasagarre Mendiñeta. Psikologia ikasi zuen Donostian. Euskara irakasle egin du lana bizitza osoan, Bigarren Hezkuntzan hala nola Hizkuntza Eskolan. Erretiratuta dago orain eta Bilbon bizi da. Honako liburuak idatzi ditu: nobelen artean, “Ezinezko maletak” (2004, Susa), “T” (2008, Alberdania) eta “Poz aldrebesa” (2017, Susa) dira azimarragarriak; poesiari dagokionez, “Gaupasak” (1991, Susa), “Bizi puskak” (1996, Susa), “Puskak biziz” (2000, EEF - Susa), “XX. mendeko poesia kaierak” (2002, Susa) eta “Bideko antza: euskal poema modernoaren antologia” (1951-2019 (2020, Alai) argitaratu ditu; itzulpen gintzan W.H. Audenaren “Poemak” (1994, Susa) nabarmentzen da; “Hegazti errariak” (1996, Euskaltzaindia-BBK) antzerki lana ere idatzi zuen, Toribio Alzaga Sariaren irabazlea suertatuz; azkenik, “Mandelaren Afrika” (1998, Susa) kronika liburua ere aipagarria da.



Aitana Pérez Ortiz

MHLI. UPV/EHU

(Sopuerta, 1999) Filologia Hispanikoan lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean (2021). Euskal Filologia eta Hizkuntzalaritza Masterra egin zuen unibertsitate berean (2022) eta Espainiar eta Hispanoamerikako Literatura, Literatura Konparatua eta Literaturaren Teoriako Masterra Salamancako Unibertsitatean (2023). Bere ikerlerro nagusiak queer/LGTBIQ+ ikasketak eta genero ikasketak dira, bereziki, euskal literaturari dagokionez. Horren adibide da berriki egin duen ikerketa euskal poesia garaikidean ageri diren queer diskurtsoei buruz, hain zuzen ere, Empar Pineda III (2023, UPV-EHU) saria jaso duen ikerlana. 2024an Eusko Jaurlaritzaren Doktoratu Aurreko Programako beka eskuratu du eta horri esker bere doktore-tesia garatzen dihardu gaur egun “Representaciones literarias del colectivo LGTBIQ+. Los discursos queer en la poesía y narrativa vascas (1990-2023)” izenekoa.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-06-30 ARTE	2025-07-15 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	61,00 EUR
Orokorra	-	87,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	74,00 EUR
Matrikula exentzioa	-	61,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	74,00 EUR
Elkar	-	74,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	-	74,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2025-06-30 ARTE	2025-07-15 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	61,00 EUR
Orokorra	-	87,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	74,00 EUR
Matrikula exentzioa	-	61,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	74,00 EUR
Elkar	-	74,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	-	74,00 EUR

Kokalekua

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Abandoibarra etorbidea. 48009- Bilbo

Bizkaia